



DOCENTIAZ PROGRAMA  
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren  
ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 4. deialdia

**DOCENTIAZ programan parte hartu duten  
irakasleek programaren garapenez duten  
iritzian oinarritutako txostena**

## **AURKIBIDEA**

	Or.
1. Sarrera	5
2. Galdera-sortaren diseinua eta garapena	6
3. Galdera-sorta erantzun duten irakasleek	6
4. Emaitzen analisia	8
5. Informazioaren analisia	24
6. Ondorioak	25

## **ERANSKINAK**

1. eranskina: irakaslearen autotxosten eredua	27
2. eranskina: Irakasleei zuzendutako galdera-sorta eredua	47



## 1. SARRERA

Txosten honek irakaskuntza jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia biltzen du, laugarren deialdian. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (SED/IEZ) galdera-sorta bat bidali zuen martxoaren 31n (ikus 2. eranskina) eta betetzeko epea 2014ko apirilaren 11an bukatu zen. Irakasleek telematikoki eta anonimoki erantzun zioten galdera-sortari, "*encuestafácil*" plataformaren bidez. Aipatutakoa da galdera-sorta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) egindako ebaluazioaren amaierako txostena jaso ondoren bete zutela.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko deialdia 2013ko irailaren 18an zabaldu zen, eta irakasleek azaroaren 11ra arteko epea izan zuten izena emateko eta autotxostena betetzeko.

Autotxostena (ikus 1. eranskina) tresna baliagarria da DOCENTIAZ programan ebaluazio formatiboa egiteko. Bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala

Irakasleei eskatutako datu gehienak automatikoki deskargatzen dira UPV/EHUko datu-baseetatik aplikazio informatikora: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskainitako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte-hartzea, etab.

## 2. GALDERA-SORTAREN DISEINUA ETA GARAPENA

Galdetegiak "Likert" eskala eta atal irekiak ditu. Sei atal ezberdinetan banatuta, 16 galderak ditu

- 1) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiei buruzko galderak (3tik 8ra eta 10retik 13ra)
- 2) DOCENTIAZ programaren hedapenari eta aplikazio informatikari buruzko galderak (1, 2 eta 9)
- 4) Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galderak (14)
- 5) Asebetetze maila orokorrari buruzko galderak (15)
- 6) DOCENTIAZ programari buruzko galdera irekia (16)

## 7. GALDERA-SORTA ERANTZUN DUTEN IRAKASLEEK

Guztira 245 irakasle gonbita genituen galdetegia betetzera; horietatik 182k bete zuten. Kopuru oso altua da, edozein inkesta telematikotan galtzen diren erantzunen kopurua kontuan hartzen badugu. Azken finean, populazioaren % 74ek galdetegia erantzun zuen. Parte hartzearen indize handi honek adierazten du irasleen interesa.

Jarraian, bi taula ikus daitezke: lehenengoan, laugarren deialdi honetan parte hartu zuten UPV/EHUko ikastegi bakoitzean lortutako erantzun kopurua ikus daiteke; eta, bigarrenean, irakasleei dagokien zientzia arloaren arabera erantzun kopurua.


### 1. taula. Ikastegien arabera erantzunak

125. Farmazia Fakultatea	6	3%
130. Letren Fakultatea	16	9%
135. Jarduera Fisikoaren eta Koralaren Zientzien Fakultatea	1	1%
151. Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	1	1%
154. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola	5	3%
160. Gasteizko gizarte langintzako Unibertsitate Eskola	5	3%
163. Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	9	5%
215. Kimika Zientzien Fakultatea	7	4%
221. Donostiako Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Ordezkaritza	1	1%
226. Informatika Fakultatea	2	1%
230. Filosofia eta hezkuntza Zientzien Fakultatea	9	5%
231. Psikologia Fakultatea	3	2%
240. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	4	2%
251. Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	3	2%
252. Donostiako Erizaintza Unibertsitate Eskola	2	1%
263. Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	8	4%
264. Eibarko Industria Ingenieritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	9	5%
310. Zientzia eta Teknologia Fakultatea	10	5%
320. Arte Ederren Fakultatea	3	2%

321. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	10	5%
323. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	13	7%
324. Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Ordezkaritza	1	1%
327. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	1	1%
345. Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa	12	7%
350. Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa	6	3%
351. Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	7	4%
352. Leioako Erizaintza Unibertsitate Eskola	3	2%
354. Bilboko Magisteritza Unibertsitate Eskola	17	9%
363. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	6	3%
364. Meatze Ingeniaritza teknikoko Unibertsitate Eskola	2	1%
	182	100%

## 2. taula. Zientzia arloen araberako emaitzak

ZIENTZIA ARLOA	Emaitza kop.	%
Zientzia Esperimentalak	32	18%
Irakaskuntza Teknikoak	48	27%
Osasun Zientziak	9	5%
Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	67	37%
Giza Zientziak	24	13%
Guztira	180	100%




### 3. EMAITZEN ANALISIA

Galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.


Horrez gain, atal irekia duten galderetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Azterketa kualitatiboan eta ondorengo kategorizazioan, gutxienez bi aldiz agertzen diren iritziak hartu ditugu kontuan.

1. itema.- Docentiaz programaren hedapena egokia izan da




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,756	% 69,05k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[3,618 - 3,894]	
Laginaren tamaina	168	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,912	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 1,00): Ez nago batere ados
Errore estandarra	0,070	

2. itema.- Adierazi zein bidetik eskuratu duzun DOCENTIAZ programari buruzko informazioa






3. itema.- DOCENTIAZ programan dauden ondorengo iritzi iturriak egokiak dira irakaslanari buruzko informazioa emateko:



**Azterketa teknikoa - Populazioa: 170**

<b>Irakasleak</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,947	% 72,35k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 0,59): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,817 - 4,077]	
Laginaren tamaina	170	
Desbiderapen tipikoa	0,865	
Errore estandarra	0,066	
<b>Ikastegiko Kalitate Batzordea</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,563	% 73,53k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,94): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,421 - 3,705]	
Laginaren tamaina	167	
Desbiderapen tipikoa	0,935	
Errore estandarra	0,072	
<b>Ikasleak (inkestaren bidez)</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,527	% 61,76k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,94): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,367 - 3,687]	
Laginaren tamaina	167	
Desbiderapen tipikoa	1,057	
Errore estandarra	0,082	

#### 4. itema.- DOCENTIAZ programa:




#### Azterketa teknikoa - Populazioa: 172

<b>Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslana ondo egiteko</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,448	% 67,44k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,288 - 3,607]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	172	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,067	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 5,81):
Errore estandarra	0,081	Ez nago batere ados
<b>Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,855	% 69,77k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,703 - 4,006]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	172	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,013	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,33):
Errore estandarra	0,077	Ez nago batere ados
<b>Egokia da, ikastegiei egiaztatze prozesuetan laguntzen baitie</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,773	% 69,19k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,630 - 3,916]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	172	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,956	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,91):
Errore estandarra	0,073	Ez nago batere ados
<b>Gardena da, ebaluazio irizpideak argitaratuta baitaude</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,703	% 65,70k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,555 - 3,852]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	172	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,997	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,33):
Errore estandarra	0,076	Ez nago batere ados

4. itema.- Adierazi, mesedez, autotxostena egitean izan dituzun hiru zailtasun

- ✓ Zailtasunak aplikazio informatikarekin (18)
- ✓ Zailtasunak meritoak autotxostenaren ataletan kokatzeko orduan (12)
- ✓ Debora gehiegi eskatzen du programak (10)
- ✓ DOCENTIAZ programa bera ikastea. Dokumentazio gehiegi, oso kontzeptuala.(10)
- ✓ Autotxostena betetzerakoan oso leku gutxi dago idazteko (9)
- ✓ Ebidentziak biltzeko zailtasunak (7)
- ✓ Gradu eta lizentziako ikasketak nola uztartu: ezin da ebaluatu lizentziatuko irakasgaia graduko irizpideekin (5)
- ✓ Eskarmentu falta (4)
- ✓ Erakunde aldetik emandako datuak, hainbat kasutan akatsek (4)
- ✓ Ikasle gida: egokia al da ebaluatua izatea? Ba al dago eredurik? Normalean sailak ezartzen du ikasle gidaren edukia (4)
- ✓ Zenbaki eta sigla gehiegi, saila ulertzeko(2)
- ✓ Aldez aurretik informazio eskuratzea ondo legoke (2)


6. itema.- DOCENTIAZ programak ikasleen iritzia baino hobeto baloratzen du irakaslana, nire ustez



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,690	% 70,18k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,34): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,547 - 3,833]	
Laginaren tamaina	171	
Desbiderapen tipikoa	0,954	
Errore estandarra	0,073	



7. itema.- Autotxostena egiteko epea nahikoa izan da




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,912	% 74,71k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,765 - 4,059]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	170	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,978	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,35):
Errore estandarra	0,075	Ez nago batere ados

8. itema.- Adierazi zenbat ordu eman dituzun autotxostena egiten


<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 5 ordu baino gutxiago (28)</li> <li>✓ 5-9 ordu (32)</li> <li>✓ 10-14 ordu (29)</li> <li>✓ 15-19 ordu (14)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 20-24 ordu (16)</li> <li>✓ 25 ordu (6)</li> <li>✓ 30 ordu (8)</li> <li>✓ 40 ordu (3)</li> <li>✓ 40 ordu baino gehiago (7)</li> </ul>
---	---

9. itema.- Informatika aplikazioak asko lagundu digu autotxostena betetzen




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,509	% 72,78k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 4,14): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,361 - 3,657]	
Laginaren tamaina	169	
Desbiderapen tipikoa	0,983	
Errore estandarra	0,076	

10. itema.- Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,643	% 72,02k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[3,504 - 3,782]	
Laginareen tamaina	168	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 1,19): Ez nago batere ados
Desbiderapen tipikoa	0,917	
Errore estandarra	0,071	

11. itema.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:



**Azterketa teknikoa - Populazioa: 170**


<b>Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,429	% 60k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,256 - 3,601]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	168	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,140	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 6,47):
Errore estandarra	0,088	Ez nago batere ados
<b>Uste baitut trebatzen lagunduko didala programa nahitaezkoa bihurtzen denerako</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,690	% 65,29k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,521 - 3,860]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	168	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,121	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 5,88):
Errore estandarra	0,086	Ez nago batere ados
<b>Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslana ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	4,018	% 78,24k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,880 - 4,156]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	169	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,916	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 1,76):
Errore estandarra	0,070	Ez nago batere ados
<b>Uste baitut balioko duela nire irakaslana aintzat hartzeko</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,912	% 75,29k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,765 - 4,059]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	170	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,978	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 1,76):
Errore estandarra	0,075	Ez nago batere ados
<b>JAPen kredituak kentzearren</b>		<b>Ondorio nagusiak</b>
Batezbestekoa	3,107	% 52,35k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[2,916 - 3,298]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	168	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1,262	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 13,53):
Errore estandarra	0,097	Ez nago batere ados



12. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko


- ✓ Departamentuak edo ikastegiak aginduta (25)
- ✓ Interesa profesionala hutsagatik eta nire irakaslan eta unibertsitatearena hobetzeko(16)
- ✓ Bete beharreko deialdi bati begira saiakera egiteagatik. UPV/EHUko Irakaslana ebaluatzen oinarriak ezagutzeko (14)
- ✓ Irakasleen akreditazio prozesuetako ondorioengatik (7)
- ✓ Irakaslana bultzatzeko balio duelako (8)
- ✓ UPV/EHU berrikuntza prozesuetan parte hartzeko baldintza bat izateagatik (4)

13. itema.- Ados egongo nintzateke programa betebeharrekoa izango balitz




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,635	% 59,28k hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna (% 2,40): Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3,468 - 3,802]	
Laginaren tamaina	167	
Desbiderapen tipikoa	1,100	
Errore estandarra	0,085	

14. itema.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderari



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4,308	% 84,62K hau aukeratu zuten:
Konfiantza tarte (% 95)	[4,180 - 4,436]	Nahiko ados nago
Laginareen tamaina	156	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,816	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 0,64):
Errore estandarra	0,065	Ez nago batere ados

15. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren laugarren deialdian parte hartu dudalako



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,988	% 73,37k hau aukeratu zuten:
Konfiantza tartea (% 95)	[3,852 - 4,125]	Nahiko ados nago
Laginareen tamaina	169	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	0,906	Gutxien aukeratutako erantzuna (% 0,59):
Errore estandarra	0,070	Ez nago batere ados

16. itema.- Programari edo laugarren deialdi esperimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian

DOCENTIAZ programari buruz

- ✓ Beharrezkoa da oso. Ondo legoke betebeharrekoa izatea. Irakaslana kalitate hobetzeko komeni da. (4)
- ✓ Motibazioa piztu egiten da (4)

Aplikazio informatikoari buruz

- ✓ Aplikazio informatikoa hobetu beharra dago(3)
- ✓ PDFak hobetu behar dira irakurtzeko (2)

0 dimentsioari buruz

- ✓ Ofizialak ez diren hizkuntzak kontuan hartu beharko lirateke (2)
- ✓ Ez dira baloratzen 1. mailan emandako eskolak

- ✓ Diziplina arteko lana ez da baloratzen
- ✓ Ondoriozko adierazleak ez du kontuan hartzen emandako irakasgaiak

#### Ikaslearen gidari buruz

- ✓ Gehiegizko garrantzia ematen zaio ikasle gidari ("paperetan den-dena sartzen da") (5)
- ✓ Proposatutako ikasle gida zalantzan jartzeko modukoa da (3)
- ✓ Zehaztu behar da gidaren luzapena, bestela, ebaluatzailearen argudioa "zehastazun falta edo..." izan daiteke (2)

#### Ebaluazioaren irizpideei buruz

- ✓ Irakaslanak kudeaketa baino garrantzi askoz gutxiago du: gehiegizko pisua ematen zaie formazio programei eta kalitate komisioetan parte hartzeari. (12)
- ✓ Gehiegizko garrantzia ematen zaie alderdi formalei. Eskatzen diren ebaluazio-irizpideei egokitzapena lortu daiteke, benetan bete gabe. Zinez, pedagogia ez da baloratzen. (7)
- ✓ Ikasleen iritziak oso gutxi balio du -10%- (4)
- ✓ Arrakasta tasaren irakurketa desegokia: zenbat eta ikasle gehiago gainditu, orduan eta DOCENTIAZen puntu gehiago lortu: ez da oso ebaluazio irizpide objektiboa. (3)
- ✓ Kalifikazio sailkapena ez da egokia: "oso ona" tarte zabalegia da (2)
- ✓ Desberdindu irakaslana irizpideen eta pedagogia ikerketaren artean. Garrantzi gehiago eman beharko litzateke lehenari.
- ✓ Hobetu behar da 25. itemean egindako kalkulua, ondo legoke zuzenean ikasleen iritzi txostenean lortutako puntuazioa hartzea, bitarte gabe. Oraingo kalkuluan kontuan hartzen diren tarteek irakasleei kalte baino ez diete egiten: adibidez 3.0-3.7 arteko puntuak 3 baino ez dute balio, nahiz eta oso tarte zabala izan. (2)
- ✓ UPV/EHUtik kanpo emandako irakaskuntzak ez du balio. (2)

#### Deialdiaren data eta ebaluazio epeari buruz

- ✓ Ez da egokia lizentzien irakasgaiak graduko irizpideekin ebaluatzea. Ezin da baloratu, ezta gomendatu ere, zaharreko planetan GAL egitea. (8)
- ✓ Tarte luzea deialdiaren data eta ebaluazio epearen artean. Izan daiteke hainbat kasutan antzemandako atal ahulak hobetua izatea, dagoeneko. (4)

#### Ondorioei buruz


- ✓ Ondorio gehiago izan beharko luke: departamentu aurrekontuetan, irakasgaiak aukeratzean, osagaietan, bosturtekoetan, besteak beste. (4)
- ✓ Kontraesana da, oso, irakasle onak irakaskuntza kredituen deskarga lortzea. (3)
- ✓ Docentiaz-en ondoriak eta sexenioarenak ez dira parekoak. (2)

#### Txostenei buruz

- ✓ Amaierako txostenak modu ezezkorrean idatzita omen daude, baita bikaintasun kasutan ere. Balorazio oso subjektiboak ditu: ematen du ebaluazio kolegiaturik ez izatea. Ez dira motibagarriak. (3)

- ✓ Amaierako txostena - ebaluazio protokoloaren antzera - egin beharko litzateke, hau da, irizpidez irizpide. (2)

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako emaitza multzoaren portzentaje banaketa barne hartzen du:



## 5. INFORMAZIOAREN ANALISIA

DOCENTIAZ programaren hedapena dela eta, % 66k nahikoa izan dela uste du, gehiengoak programari buruzko informazioa eskuratu du UPV/EHUn iragarki taularen bidez, eta, % 36k adierazi du ikastegia dela irakaskuntza jarduna ebaluatzeko programa jakinarazteko ardura izan duena.

Iritzi iturrien egokitasunaren inguruan, % 72,35 erabat edo nahiko ados dago irakasleak egokiak direlako iritziarekin, %73,53 gutxi gorabehera ados edo nahiko ados dago ikastegiko kalitate batzordea izan dadila informazio iturri eta, ikasleen inguruan, % 61,76.

Irakasleek uste dute DOCENTIAZ programa dela:

- Hezigarria (% 81 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Beharrezkoa (% 89 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Egokia (% 91 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Gardena (% 88 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)

% 70,18k uste du DOCENTIAZ programak hobeto balioesten duela irakaskuntza jarduna ikasleen iritzi inkesta baino.

Epeak direla eta, irakasleek uste dute nahiko izan direla eta gehienek diote aplikazio informatikoak erraztu duela autotxostena betetzeko zeregina.

Ebaluaziorako protokoloa ere % 90ek dokumentu baliogarritzat hartzen dute autotxostena betetzekoan.

Honako hauek dira irakasleek borondatez parte hartzeko adierazi dituzten arrazoiak:

- % 78k uste du DOCENTIAZ programak balioko duela irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak.
- % 84k uste du trebatzen lagunduko diola programa nahitaezkoa bihurtzen denerako.
- % 93k uste du eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- % 90ek uste du balioko duela bere irakaslanaren aitortzea lortzeko.
- % 68k uste du JAPean kredituak lortzeko bide eskaintzen diola.

DOCENTIAZ programa nahitaez ezartzeko aukeraren inguruan, % 81ak adostasuna agertzen du neurri honekiko.

Irakasleek iritzi ona dute IEZeko pertsonalak egindako arretarekiko. Azkenik, nabarmentzekoa da irakasleen % 94 pozik dagoela DOCENTIAZ programaren laugarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: % 20, nahiko ados: % 41 eta erabat ados: % 33).

## ONDORIOAK

UPV/EHUren DOCENTIAZ programak abantaila asko du behin betikoz ezar dadin, honez gero 2010eko maiatzetik 2014ko maiatzera bitartean izan dituen lau deialdi esperimentalak direla medio.

Deialdi esperimental hauei esker, irakaskuntzaren ebaluaziorako programa hau zabaldu egin da UPV/EHUko eragile ezberdinen artean: unibertsitate ikastegi, irakasle eta, azkenik, eta agian modu arintxoagoan, ikasleen artean.

Laugarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengo bat (% 93) pozik dago parte hartu izanagatik, irakasleek prestakuntzarako programa hartzen dute DOCENTIAZ, beharrezkoa, neurritz egindakoa eta gardena. Ados daude, era berean, hiru informazio iturriekin: irakasleak, ikasleak eta ikastegietako kalitate batzordeak, hain zuzen ere. Datu multzo hauek guztiek indar gune sendoa osatzen dute, irakaskuntza ebaluatzeko programa honek planteamenduan asmatu duela adieraziz.

Irakasleek, beren aldetik, iritzi ona dute aplikazio informatikoaren prestazioen inguruan. Zinez garrantzizkoa da aplikazio informatiko bizkor eta intuiziozkoa izatea irakaslana ebaluatzeko programa garatzeko, batez ere, irakasleei, kalitate batzordeei eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeari (IEUB) egin beharreko lana errazteko.

Aipatu behar da datuak direla edozein ebaluazio prozesuren oinarri eta zutabe nagusietakoa: eskura errazak eta zuzenak izan behar dira. Helburu honekin landu da aplikazio informatikoaren diseinua, garapena eta hobekuntza egiterakoan. Honen haritik, funtsezkoak izan dira lau deialdi esperimental hauek, erroreak atzeman eta zuzentzen aldera.

Laugarren deialdi honetan, ebaluazio protokoloa igorri egin zaie irakasleei –zeini bere helbide elektronikora– eta, honekin, izugarri erraztu da autotxostena betetzeko lana, programak bere baitan duen adierazle bakoitzari emaniko puntuazioak aldeztu aurretik jakinda. Hala ere, bosgarren deialdian zehaztu egingo da protokoloaren edukia, adierazteko halako merezimendu bat zer ataletan sartu behar den, aski zaila izan baita irakasleek galdera irekietan adierazi dituzten bezalaxe.

Azkenik, eskerrak eman behar zaizkie galdetegia bete duten irakasle guztiei, UPV/EHUko irakaskuntza jarduna ebaluatzeko programa hau, gero eta baldintza hobetan aplikatu dadin. Izan ere, DOCENTIAZ programan parte hartu duten irakasleak dira onarriak jartzen ari direnak, fase esperimental honen ostean, epe laburrean, ereduaren egiaztapena lortu eta gero, unibertsitate osoan zabalduko da.

Gure eskerrik zintzoena DOCENTIAZ programan parte hartu duten guztiei, deialdi esperimental guztiei orori atzeman dakizkiokeen erroreari aurrean agertu duten pazientziarengatik.







## **1. eranskina. Irakaslearen autotxosten eredua**





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## UPV/EHUko irakasleen irakaslana ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko 4. deialdia

# Autotxostena

### Irakasleari buruzko informazioa

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Saila: \_\_\_\_\_

Atxikitako ikastegia: \_\_\_\_\_

Ebaluatu beharreko aldia: \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_



## AURKEZPENA

Autotxostena ondorengo dimentsioetan egituratuta dago:

0. DIMENTSIONA: Irakaskuntza zama eta haren faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, eskolak euskaraz ematea, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).

1. DIMENTSIONA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

1.1.- Gaien plangintza

1.2.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena

2. DIMENTSIONA: Emaitzak

2.1.- Arrakasta tasak

2.2.- Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta

2.3.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak

3. DIMENTSIONA: Irakasleen garapen profesionala

3.1.- Irakaskuntza kalitate instituzionalerako prozesuetan parte hartzea

3.2.- Koordinazio instituzionala

3.3.- Prestakuntza

3.3.1.- Jasotako prestakuntza

3.3.1.- Emandako prestakuntza

3.4.- Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak

3.5.- Hedakuntza



## 0. DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZA ZAMA

Irakaskuntza jardueraren zailtasun maila baloratzen da, hainbat faktoreen arabera

UPV/EHUK berak emango ditu irakaskuntza zamari buruzko ebidentziak. 0. dimentsiotik azken faktore bat ateratzen da: **ondoriozko adierazlea**. Adierazle hori Irakaslana Ebaluatze Unibertsitate Batzordeak irakasle bakoitzaren **behin betiko puntuazioa** kalkulatzeko emandako puntuazioarekin biderkatu behar da.

Honako pauso hauek eman behar dira 0. dimentsioan:

1.- Emandako irakaskuntza zamaren zenbateko errealak kalkulatu behar da (tutoretzapeko irakasgaiak, eskuliburuko irakaskuntza zama eta murrizketak kanpo utzita), teoria eta praktika talde eta azpitaldeen arabera banatuta.

$K_{urtea\_e}$  = Urte bakoitzean emandako kreditu kopurua, taldeka eta azpitaldeka banatuta (teoria, ikasgelako praktikak, laborategiko praktikak, ordenagailuko praktikak, etab.).

2.- Emandako irakaskuntza zamaren zenbateko bakoitza biderkatu behar da haiengan eragina duten faktoreekin (1etik 3ra), faktoreen definizio hauen arabera (doktoregoan emandako eskoletan, 3 faktorea aplikatuko da soilik, doktoretzako matrikulak ez baitaude GAUREn grabatuta eta, horrenbestez, ez dira beste ikastegi batean emandako ordutzat jotzen):

$f_1$  = talde bakoitzeko ikasle kopurua

$f_1 = 1$	20 ikasle baino gutxiagoko taldea baldin bada
1,01	20ko edo 20-50 ikasle arteko taldea baldin bada
1,05	50eko edo 50-80 ikasle arteko taldea baldin bada
1,1	80ko edo gehiagoko ikasle taldea baldin bada

$f_2$  = beste ikastegi batzuetan emandako eskolak (doktoregoko, masterretako eta HELAZeko eskolak ez dira beste ikastegi batzuetan emandakotzat jotzen) edo antzeko sailetan emandakoak (plan gidariarekin bat etorritik)

$f_2 = 1$	eskolak irakaslea atxikita dagoen ikastegian ematen baldin baditu
1,05	eskolak beste ikastegi batean ematen baldin baditu

$f_3$  = euskaraz emandako eskolak

$f_3 = 1$	eskolak euskaraz ematen ez baldin baditu
1,2	eskolak euskaraz ematen baldin baditu

